

ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri albizkaria • 99.alea. 2026ko maiatza

ITZIAR ORTIZ DUYOS

Liburu-dendako saltzailea

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com



DOHAINIK DA!
EMAN IZENA

EUSKARA ZUZARA

PRAKTIKATU GUREKIN!

MINTZATALDEAK

Praktikatu euskaraz giro atseginean, zuk erabakiko duzu noiz eta nola.

GURASOLAGUN

Helduak eta haurrak beste familiekin euskaraz hitz egiteko tailerrak eta jolasak.

EKINTZAK

Hamaika aukera: tailerrak, txangoak, emanaldiak, mintzodromoak...

XEDE-TALDEAK

Hitanoa eta euskalkiak, irakur-zale-klubak, mendilagunak, online taldeak...

ABANTAILAK

Hilero-hilero opari kutxen zozketak eta harpidetzetan deskontuak.



ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria

99. alea. 2026ko maiatza

www.zorrotzmorrotz.eus

zm@zorrotzmorrotz.eus

[@ZorrotzMorrotz](https://www.facebook.com/ZorrotzMorrotz)

[@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

[@zorrotzmorrotz](https://www.instagram.com/zorrotzmorrotz)

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Aiert Cobo
Ainara García
Eneko García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Oier Pando
Narrea Peña
Iratze Pérez

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Narrea Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Alaitz Aldabaldetreku

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.
Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Bilbao
URRUTIA
www.bilbao.net

sarrera

Komunitatea garelako

Auzoa guztion artean egiten dugu egunero. Horregatik, Auzo Elkarteko kideok beti planteatu izan dugu elkarte auzo osoa garelako. Historikoki, Zorrotzak herri-mugimendu indartsua eta askotarikoa izan du, eta harro egon gaitzeko eta harro egon beharko genuke horretaz.

Hemen bizi garen pertsona guztion bizi-kalitatea hobetzeko alternatibak eraikitzen ibili gara. Lan horren ezaugarri nagusia seriotasuna eta iraunkortasuna izan dira, eta hori auzotik kanpo ere aitortu izan digute.

Urte asko daramagu auzoari dagozkion gai askotan borrokan. Ikasi dugu zein garrantzitsua den irmo jokatzeko gure aldarrikapenak lortzeko. Hirigintza-hobekuntzak garrantzitsuak dira, baina beste esparru hauetan egin diren aurrepausoak ere nabarmendu nahi ditugu, hala nola: kultura, hezkuntza,

aisialdia, osasuna, kirola, berdintasuna, kulturartekotasuna, belaunaldien arteko elkarbizitza, euskara, bizikidetzatza, zaintza, eta abar. Azken batean, komunitateari dagokion guztia. Eta hori oso garrantzitsua da, komunitate berekoak baikara guztiok.

Eta horretan datza, hain zuzen ere, komunitatea egitea eta izatea; guztion parte-hartzeari esker, gure auzoko bizitza hobetzen joango garen komunitatea baikara.

Arazoak badaudela konpontzeko? Bai, jakina! Horregatik eta horretarako behar zaituztegu, ziur gaudelako guztion artean egoera bakoitzari erantzun egokia emateko gai izango garelako. Beraz, animo eta ekin lanari!

Zorrotza bizirik,
Zorrotza aurrera!!



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75

Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75

Telefonoa: 94 442 17 12



Zorrotzan ere “Euskara gara”

Ehundaka pertsona batu ziren Korrikara Zorrotzatik igaro zenean



ZORROTZ MORROTZ | ARGAZKIAK: AEK eta ZORROTZ MORROTZ

Korrikaren 24. edizioa bere azken egunean heldu zen Zorrotzara. Atharratzetik 11 egun lehenago atera ondoren, eta 3.364 kilometro eginda, martxoaren 29an gurean sartu zen goizeko 9ak aldera “Euskara gara” lemapean. Ehundaka pertsona batu ziren euskararen aldeko martxara eta, hiru kilometroko ibilbidea egin ondoren, Bilborako bidean agurtu genuen Korrika, handik ordu gutxitara udaletxe aurrean bukatzeko. Auzoko ibilbidean ateratako hainbat argazki bildu ditugu albiste honetan eta askoz gehiago ere webgunean.

Ohi denez, aurreko ostiralean Korrika Kulturala antolatu zen, auzoko elkarten lankidetzaz. Herri Kirolak, ihes gela, erromeria, umeentzako diskofesta eta bertso poteoa Nerea Elustondo eta Sustrai Colina bertsolariekin. Egun berean, goizean Zorrotzako ikasleek kaleak hartu zituzten Korrika Txikian. Zazpilanda eskolan hasi, Fray Juan eskolatik pasatu eta Institutuan bukatu zuten, koreografia bateratu eta guzti.

Bi urte barru Korrikak uzten dituen une hunigarriak berriro bizitzeko prest gaude, jakina. Izan ere, eta aurtengo mezua zioen bezala, *“Euskara gara eta hemen gaude. Hemen gara eta euskaraz gaude. Aurrera goaz. Bazatoz?”*




Vía gráfica

• diseinu grafikoa
viagraficazorrotza@gmail.com

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

100 urte



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

Hiru eguneko egitaraua aurtengo Clown Zorrotza jaialdian

Maiatzaren 7tik 9ra Azoka plazan izango diren bost ikuskizunek umorea, mimoa eta akrobaziak uztartuko dituzte



ZORROTZ MORROTZ

Maiatzaren 7tik 9ra, umorea eta gozame-na izango dira nagusi Zorrotzan, Clown Zorrotza jaialdian adin guztientzat programatutako antzezlanei esker. Urtero bezala, ikuskizun guztiak Azoka plazan eta dohainik izango dira.

Jaialdia manoAmano taldeak irekiko du maiatzaren 8an, ostegunean. Lengoaia akrobatikoa umorez, gozotasunez eta bihurrikeriaz baliatuta, egoera soilak lotzen dituen “Kinematos” proposamena antzeztuko dute.

Kataluniako Labú Teatrek irekiko du ostira-leko saioa, kaleko arteetarako proposamen ebokatzailea den “Triplette” antzezanarekin. Ondoren, Antzara-jokoan inspiratuta dagoen “El juego de la Boca” ikuskizuna aurkeztuko du El Mono habitado konpainiak.

Nacho Floresen “Domte” lan poetiko bisual eta komikoak itxiko du jaialdia larunbatean, 19:00etan hasita. Orduete lehenago, mimoa, clown teknikak eta soinu efektuak nahasten dituen Agro the Clown artistaren “Improlocura” ikuskizunaren txanda izango da.



Gazte bat atxilotuta edukiontzia erretzeagatik

ZORROTZ MORROTZ

Pasa den martxoaren 22an, herritarren laguntzari esker, Ertzaintzak 25 urteko gazte bat atxilotu zuen, bi edukiontzi nahita erretzea egotzita. Goizalde hartan eta aurrekoan, guztira 8 edukiontzi erre ziren Zorrotzan, eta suteek kalte handiak eragin zituzten auzoko hainbat eraikinetako fatxadetan eta zenbait ibilgailutan.

Sebería Bilbainari egindako ikuskapen batek akatsak antzeman ditu uraren, hondakinen, lurzoruen eta airearen kalitatean

Ikuskapenaren akatsak direla eta, Auzo Elkarateak idazki bat bidali dio Industria Sailari kezka adierazteko

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako Auzo Elkartea kexu agertu da berriro, *Sebería Bilbaina* enpresak Burtzeñan duen lantegiari egotzen dizkieten usain “desatsegin eta higuingarriak” direla eta. Arazo hori dela eta, idazki bat bidali dio Auzo Elkarateak Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari, lantegian programatutako eta 2025eko maiatzaren 28an egin zen ingurumen-ikuskapen baten emaitzak ezagutu ondoren. Ingurumen Ikuskaritza Zerbitzuaren txosten ofizialak aireari, urari, hondakinei eta lurzoruei lotutako akatsak identifikatu zituen, eta *Sebería Bilbainaren* betetze-maila “ertaina” izan zela ondorioztatu zuen. Enpresaren jabeak ez zuen alegaziorik aurkeztu *Sebería Bilbaina* akatsak zuzentzeko edo 30 eguneko epean neurriak justifikatzeko behartzen zuen txostenaren aurka.

Geroago, 2025eko azaroan, usainak ardatz hartuta, programatu gabeko beste bisita bat egin zen, eta kasu hartan ikuskapenaren arabera “funtzionamendua normala” zen, eta ez da eskakizun berririk egin. Baina auzotarren idazkiaren arabera, “kezkgarria eta atsekabegarria” da funtsezkotzat jotzen diren alderdietan akatsak eta ez-betetzeak egotea, eta nabarmendu dute hamarkadak eman dituztela “usain desatsegin eta higuingarriekin”.

Sebería Bilbaina 1906an sortu zen eta animalia-azpiproduktuak tratatzen ditu. Enpresaren arduradunek Europako araudia betetzen dela eta ingurumena errespetatzen duten prozesuak aplikatzen direla defendatzen dute. Hala ere, ez da bertan arazoak antzeman diren lehen aldia: 2020ko eta 2023ko kontroletan (bieten enpresak bazekien ikuskapenen datak noiz izango ziren), zarata- eta emisio-akatsak adierazi ziren, nahiz eta betetze-maila orokorra “handia” izan.



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

// Nekez, baina ilusioz, alabentzat etorkizun hobea aurkitu dut hemen //

CLAUDIA CIPRIÁN LEÓN

Jaiotokia: Kolonbia

Noiztik hemen: 2019tik.

Adina: 50

Lanbidea: Erizaintzako laguntzailea.

Kolonbiatik etorri zen Claudia bere bi alabekin, egoera zaila atzean utzita.

Neke handiz, baina ilusioz beterik, gaur egun Zorrotzan bizi da, bertan lan egiten du eta bere alabentzat etorkizun lasaiago eta seguruago bat eraikitzen ari da.



TESTUA ETA ARGAZKIAK: NAROA PEÑA

Nolatan eta zergatik etorri zinen?

Sakrifizio handiarekin etorri nintzen: Planik, dirurik eta familiarik gabe... bakarrik eta bi alaba txikirekin, baina ilusio handiarekin. Nire asmoa bakean eta lasaitasunez bizitzea zen, lan egiteko aukera izatea eta nire alabei bizimodu xumea eskaintzea. Egonkortasuna eta aurrerapena lortu nahi nituen, asko bilatu arren, aurkitu ez nuena.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohituetara moldatzea?

Bai, asko kostatu zitzaizun kultur desberdintasunak onartzea eta pertsona batzuen apatia ulertzea. Lana ez zen, ez da eta ez da izango ohituta nengoen bezalakoa, baina ohitura-izakiak garen arren, hemen lana izatea zorte handia da eta horregatik esker-tuta bizi naiz.

Zure herrian zein lanbide zeneukan?

Nire herrialdean beti bulegoetan lan egin nuen, audiotoretzak egiten. Baina horrek ez

nau gelditu bilatzen nuena lortzeko: egon-kortasun emozionala eta nire alabentzat etorkizun hobea edo, gutxienez, nik izan nuena baino hobea eskaintzea.

Oso ezberdina da hango bizimodua edo aukozkoa bezalakoa da?

Gauza askotan oso antzekoa da, baina beste batzuetan oso ezberdina, batez ere, segurtasunari dagokionez. Nire beldur handiena hori zen, eta hemen bilatu eta aurkitu egin dut.

Zer da Zorrotzako gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana arnasten den lasaitasuna da; gutxien gustatzen zaidana, berriz, metroa ez egotea.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Familiaren falta da gehien sumatzen dudana, haien besarkadak... Oso harreman estua genuen, eta orain telefonoz bakarrik hitz egiten dugu; hori da dugun harreman bakarra...

Zorrotza
euskaitegia

“ Euskara asko
gustatzen zait.
Kostata, baina
ikasten ari naiz



Nolakoa da zure eguneroko bizimodua Zorrotzan?

Oso lasai bizi naiz: lan egiten dut, euskara ikasten dut euskaltegian (asko gustatzen zait, baina asko kostatzen zait), eta nire alabekin etxean lasai egoten naiz.

Euskara ikasten ari zara, beraz. Eta zelan moldatzen zara? Zerbait esaten animatu zara?

Ondo. Batez ere, ulertzen saiatzen naiz; horretan ari naiz lanean eta horretan jarraituko dut, bai.

Zure jaioterrira askotan bueltatzen zara?

Ez, oso urrun dago, eta, gainera, bidai txartelak oso garestiak dira

Zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu ala Zorrotzan betiko geratzea erabaki duzu?

Ez, ez dut hara berriro bizitzera itzuli nahi. Hemen geratu nahi dut betiko eta hemen hil; nire alabek hemen izan ditzatela sustraiak, bizitza eta etorkizuna. Izan ere, etorkizunerrako, Basurtun nire etxebizitza ordaintzen hasi naiz..

**ESKAINTZA
PROGRESIBOETAN
ARMAZOIA +
KRISTALAK** GOI-GAMAKoak
265€

Sustapena indarrean + 4.000 esterako eta -2.000 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18 **ibarretaluxury**
O P T I C A

**MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2 Tel. 94 499 01 30
48013 Zorrotza www.mesonluna.es



Elitezko talde bat etxe ondoan

Taldeak 30 urte bete ditu hockey linearen elitean finkatuta eta Zorrotzarekin duen lotura estutzen

AITOR MARIN

Bilbao Metropolitano klubak 30 urteko historia bete du. Bilbon izotz pistak desagertu zirenean, Artxandako eta Portugaleteko izotz hockeyko jokalaririk ohi batzuek kirol horretan jarraitzea erabaki zutenean jaio zen kluba. Horrela, lineako patinetara egokituz, gaur egun estatuko elitean lehiatzen den Metropolitano HC sortu zuten.

Hiru hamarkada geroago, Ibai Aranzamendi Zorrotzako 27 urteko bizilaguna da proiektuaren buru, eta lehendakari, kirol-zuzendari, entrenatzaile eta jokalaririk gisa dihardu. Bere papera funtsezkoa izan da taldea sendotzeko, bai kirol arloan, bai antolaketan.

Lehiaketa ez dago guztientzat egina, baina kirol eta klub honetan guztiontzako lekua dago

Zorrotza pista funtsezkoa klubaren jaurirako
Klubaren jauzi handia 2007ko Munduko Txapelketarako eraikitako Zorrotzako kiroldegiko pistaren inaugurazioarekin batera iritsi zen. Ordura arte, taldeak Deustun Euskalduna zubiaren azpian zegoen pista batean jokatzeko zuten.

Erabateko aldaketa izan zen: oinarriko azalera batetik goi mailako instalazio batera igaro ziren, Europako onenen artean. Munduko Txapelketaz gain, pabiloiak Errege Kopa edo Espainiako Superkopa bezalako lehiaketak hartu ditu eta Bilbo zein Zorrotza lerroko hockeyaren mapan kokatu ditu.

Gaur egun, Metropolitano taldeak 150 kirolari inguru ditu, baina gertuko eta familiako giroari eusten dio. Klubak gehiegizko lehiatik urruntzearen aldeko apustua egiten du eta bere jokalarien ongizatea lehenesten du. Lehiaketaz haratago, errespetua, diziplina eta laguntasuna bezalako balioak sustatzen ditu. Aranzamendik azaltzen duen bezala: "lehiaketa ez dago guztiontzat egina, baina kirol eta klub honetan guztiontzako lekua dago".

Dena den, lehiari dagokionez, emaitzak ez dira nolanhikoak. Metropolitano da lerroko hockeyan titulu gehien dituen Euskal Herriko kluba, eta Estatuko maila gorenetan lehiatzen da. Emakumezkoen taldeak aurrerapen handia izan du: 2022an Zilarrezko Liga irabazi zuen (hirugarren maila) eta, bi igoera jarraian izan ondoren, gaur egun maila gorena den Elite Ligan lehiatzen da. Bestalde, gizonzkoen taldea Errege Kopako txapeldunordea izan zen 2018an, eta aurreko denboraldian maila goreneko Elite Ligako titulua lortzeko finalerdietara iritsi zen.



Eredu aldaketa: harrobiaren aldeko apustua

Mailari eustea ez da erraza izan. Pandemiaren ostean, klubak zailtasun ekonomikoak izan zituen, eta garai hartan kirol egoera fixaketen mende zegoen. Ondorioz, gizonen taldea Urrezko Ligara jaitsi zen. Ordutik aurrera, Metropolitanoko arduradunek harrobian oinarritutako eredu baten aldeko apustua egitea erabaki zuten. Emaitza behar iritsi zen: 2024an elitera itzuli ziren eta pasa den denboraldian merezimenduzko hirugarren postua lortu zuten euskal jokalariekin bakarrik, gehienak bizkaitarrak. Emakumezkoen taldeak filosofia berari jarraitzen dio, maila gorenean bertako jokalariekin lehiatuz.

Harrobia da elitean lehiatzeko aukera ematen duen oinarria

Horregatik, harrobia da gaur egun proiektuaren zutabea. Klubak hockey- eta patinaje-eskola bat du Zorrotzan, astean bi egunetan entrenamenduak prezio merkean eskaintzen dituen. Gainera, Bilbo Handiko ikastetxeekin elkarlanean aritzen da kirol hau ezagutzera emateko. “Harrobiaren hazkundera funtsezkoa da kirol-helburuak lortzeko”, azpimarratu du Aranzamendik.

Auzoari gero eta lotuago dagoen kluba

Metropolitano Hockey Clubak Bilbo osoa ordezkatzen duen arren, Zorrotzarekin duen lotura indartu egin da kiroldegira iritsi zenetik. Klubak auzoko jaietan parte hartzen du eta doako erakustaldiak antolatzen ditu hockeya bizilagunei hurbiltzeko. Hala ere, oraindik ez dira oso ezagunak, neurri batean pabiloia itxia eta nolabait “urruna” delako. Horregatik, bizilagun gehiago erakartzeko asmo lan egiten dute, “luxua baita maila goreneko hockey talde bat etxetik hain gertu izatea”.

Klubak jokalar berriei sarrera errazten die: doako bi asteko proba eskaintzen du eta materiala lehen sei hilabeteetan musuturk uzten du, hasierako inbertsio handia saihesteko. Klubari edo kirol honi buruz gehiago jakin nahi duen edonor jar daiteke harremanetan sare sozialen, telefonoaren edo posta elektronikoen bidez.

Hori da bere etorkizuneko benetako helburua: harrobia haztea. Soilik horrela utziko dio hockey lineak kirol minoritarioa izateari eta presentzia irabaziko du auzoan. Eta,aldi berean, Metropolitanori aukera emango dio elitean lehiatzen jarraitzeko, etorkizun hurbilean gizonen taldearekin tituluak lortzeko eta emakumezkoena maila gorenean finkatzeko.

ITZIAR ORTIZ DUYOS: "Lápices" liburu-dendako saltzailea

// Pertsonalizazioengatik ez balitz, liburu-denda aspalditik itxita legoke //

Itziar Ortiz Duyos (35 urte) auzoko "Lápices" liburudendaren arima da. Amak sortutako negozioa hartu behar izan zuen ustekabeen, hura gaixotzean, eta ordutik berrasmatzen jakin du: liburu-denda izatetik harago, sormen eta gertutasun gune bihurtu du, auzoari lotuta eta etorkizunari begira.

TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ | ARGAZKIAK: AITOR MARIN

Liburu-denda

Noiztik dabil martxan "Lápices" liburu-denda?

Liburudenda 2001eko urriaren 21ean ireki zen. Aurten 25 urte beteko ditu eta, dena ondo bidean, zerbait berezia antolatuko dugu ospatzeko.

Zerk bultzatu zuen zure ama denda irekitzera?

Amaren betiko ametsa liburu-denda bat edo lurrindegia bat irekitzea zen. Irakurzale eta lurrintzale amorratua zen, eta argi zeukan bere kontura lan egin nahi zuela, auzoan bertan. Hasieran alokairuan egon zen beste lokal batean, eta geroago gaur egungo denda ireki zuen. Auzoak besoak zabalik hartu gintuen.

Zuk txikitatik bizi izan duzu denda barrutik, ezta?

Bai. Eskolatik irtetean dendara etortzen ginen, amarekin egoteko. Guretzat jolas modukoa zen: kanbioak eman, fotokopiak egin... Ondoren, etxera joaten ginen eskola partikularrak hartzera eta gauean ama lanetik heldu arte itxaroten genuen, berarekin beste tartertxo batez egoteko. Izan ere, lan honen atzean ordu asko daude; ez da bukatzen atea ixtean.

Noiz egin zenuen jauzia dendara?

Ez nuen nik erabaki, amaren gaixotasunak baizik. Karrerako azken mailan nengoen eta dena utzi behar izan nuen lanean hasteko. Uztailaren 31n amari ezgaitasun osoa eman zioten eta biharamunean ni hemen nengoen lanean. Ez zegoen beste aukerarik, nire ahizpa txikia eskolan zegoen eta aurrera egin behar genuen.



“ Ez nuen nik erabaki dendan sartzea, egoerak bultzatu ninduen

“ Nire amaren agunek animatu ninduten arriskua hartzera

“ Motibatzen ninduten gauzak sartzen hasi nintzenean egoerak hobera egin zuen

Hasiera erraza izan zen?

Ez pentsa. Ama okerrago jarri arte nirekin zegoen dendan, eta horrek asko laguntzen zidan, noski. Baina ama nirekin egoteak eztabaida asko ere sortzen zituen, berak gauzak bere moduan nahi zituelako eta nik nirean... Ulertzekoa zen, liburu-denda bere haurtxoa zen-eta!

Garai batean, egunero negar-malkotan gosalitzen nuen lanera etorri nahi ez nuelako. Denda salgai jartzera ere iritsi ginen. Baina apurka-apurka negoziua neure esku uzten joan zen.

Zerk eman zion buelta egoerari?

Txipa aldatzea erabaki nuenean hobera egin zuen egoerak. Motibatzen ninduten gauzak sartzen hasi nintzen: jostailu desberdinak, gazteagoentzako produktuak... eta hortik etorri zen aldaketa.

“**Idazle ezagunak etorri dira liburuak sinatzera eta arrakasta handia izan dugu.**

“**Tokiko dendek gertutasuna eskaintzen dute, hori ezin da ordezkatu**



Berrikuntza eta egokitzapena

Zein izan da aldaketa nagusia?

Bezeroen batez besteko adina jaitea zen nire helburua. Horretarako, Playmobil, Lego edo Funko Pop bezalako produktuak ekarri ditut, auzoan ohikoak ez zirenak.

Eta hortik harago ere jo duzu...

Bai, duela lau urte pertsonalizazio-lanak egiten hasi nintzen: kamisetak, poltsoak, bo-ligrafoak... Orain zura ere lantzen dut, belarri-takoak egiten ditut... Horretarako makineria berria sartu behar izan dut eta denda apur bat berrantolatatu.

Zure amak ez zuen aldaketa hori ikusi...

Ez, eta pena handia da. Ziur nago liluratuta geratuko litzatekeela. Erabakia hartu aurretik, bere lagunak eta nire ahizpa elkartu nituen aholku eske, eta haiek animatu ninduten arriskua hartzera.

Ekonomikoki, ezinbestekoa izan da berrikuntza?

Erabat. Pertsonalizazioengatik ez balitz, liburu-denda aspalditik itxita legoke. Eskola liburuak gutxiago saltzen dira, besteak beste, mailegu solidarioa eta liburu digitalaren eraginez. Papertegiaren salmenta ere jaitsi da, jendeak bazarretan erosteko joera duelako.

Online salmentak ere eragingo du, ezta?

Askok. Bezeroen ohiturak aldatu egin dira: dena berehala nahi dugu. Batzuetan, liburu bat eskatu eta bi egun itxaron beharrean, beste leku batera joaten dira.

Zer eskaintzen du tokiko dendak plataforma handiek ematen ez dutena?

Gertutasuna. Nik opari-paperekin biltzen dut liburua, bezeroari egun on esaten diot, auzoko ekintzak (futbol-taldeak, jaiak...) babesten ditut... Hori ez du plataforma handi batek egiten.

// Denda honetan lanaren balioa ikasi dut //

Zer esan nahi du zuretzat denda honek?

Nire bizitzaren zati handi bat da. Hemen hazi naiz eta hemen ikasi dut lanaren balioa.

Anekdotak bitxiak?

Denetarik eskatu didate: bonbilak, buzeorako hegatsak... batzutan jendeak pentsatzen du denetarik dugula!

Zer eskertzen diozu auzoari?

Hasieratik eman digun babesa. Nire ama dendan ez zegoenean ere, jendea beragatik galdetzeraz etortzen zen. Orain nire ordeaz ahizpa dagoenean, berdin egiten dute baina nirekin. Horrek asko esan nahi du.

Zer duzu buruan urteurrena ospatzeko?

Urrirako zerbait berezia antolatzen ari naiz baina ezin dut ezer aurreratu! Bakarrik auzoari irekia izango dela.



Auzoa eta etorkizuna

Nolakoa da zure bezero-profila gaur egun?

Jende nagusia mantentzen dut, baina gero eta gazte gehiago sartzen dira, batez ere nire belaunaldikoak, seme-alabak dituztenak eta auzoko dendetan erostearen aldekoak.

Ekitaldiak ere antolatu izan dituzu...

Bai, liburu-aurkezpenak eta sinaketak, besteak beste. Idazle ezagunak etorri dira eta

arrakasta handia izan dugu. Toti Martínez de Lezea etorri zenean 45 minutuko ilara sortu zen! Azkenaldian, ordea, egiteari utzi diot, jendea pixka bat nekatu dela iruditzen zait.

Eta etorkizunari begira?

Ni orainaldian bizi naiz, baina gustatuko litzaidake denda luzaroan mantentzea, nire amagatik ere bai. Euromilioia tokatuz gero, ez nuke utziko: alboko lokala erosiko nuke negozioa handitzeko.

ehbildu

ETORKIZUNA DA ORAIN

Esperantzaren nazioa.



ASKABIDE ZORROTZA



AGENDA

Maiatzak 1, ostirala

22:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: JOTA CARAJOTA + YOGURINHA BOROVA. Sarrera: 13€.

Maiatzak 2, larunbata

21:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: ZENOBIA + DAERIA
Sarrera: 18€

Maiatzak 5, asteartea

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: MICHAEL ANGELO BATIO. Sarrera: 27€

Maiatzak 7, osteguna

19:00. Zorrotzako Udaltegian.

Antzerkia: BILBOKO ZIRKUITOA. COMPANYIA DEL BAC: "El recital, la palabra contra el olvido". Sarrera doan.

19:00. Azoka plazan.

Antzerkia: CLOWN ZORROTZA. MANOAMANO: "Kinematos".
Sarrera doan.

Maiatzak 8, ostirala

Azoka plazan.

Antzerkia: CLOWN ZORROTZA.

18:00. LABÚ: "Triplette".

19:00. EL MONO HABITADO: "El juego de la boca". Sarrera doan.

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: PONTE DEL DIAVOLO + WHITEDEMON Sarrera: 24€

Maiatzak 9, larunbata

Azoka plazan.

Antzerkia: CLOWN ZORROTZA.

18:00. AGRO THE CLOWN:

"Improlocura".

19:00. NACHO FLORES: "Domte".
Sarrera doan.

19:30. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: FIVE GENERATIONS + THE ARCREEKS. Sarrera: 24€

Maiatzak 10, igandea

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: NASHVILLE PUSSY.
Sarrera: 23€

Maiatzak 16, larunbata

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: SARATOGA. Sarrera: 27€



Datorren udan ez gara hemen biziko

Ane Zubeldia Magriñá.

Elkar. 2026. 124 orrialde.



Ane Zubeldia poeta, musikari, aktore eta itzultzailearen lehen narratiba bilduma da hau. Sei istorioz osatua, askotarikoak teknikan eta gaietan, baina guztiak ere halako lilura bat transmititzen dutenak. Idazketa klasikotik hasi eta abangoardiazko esperimenteraino, denean erakusten du maitasun galanta luma erabiltzean,

eta sentiberatasun nabarmena istorioak jostean: bat pertsonaiak marraztean, bat eszenak eraikitzean.

Gai, giro eta garai askotako istorio hauetan gauzen, aroen zein pertsonen galeraren kontzientzia erne bat nagusitzen da, batetik, eta bestetik edertasunez gainezka egin eta trantsendentzia-sentipena pizten duten une magikoak, haiek emango baliote bezala zentzua bizitza labur eta hauskor honi.



GARRATZ: "Bidoi bete gasolina"

Tropical Riot Records (2026)




Punk-rock eta reggae ukituak uztartzen dituen talde batekin gatoz oraingoan. Ez da lehenengo aldia txoko honetan, eta espero dugu azkena ez izatea, beraien proposamena oso freskoa eta interesgarria baita. "Bidoi bete gasolina" izenburua du Garratz

taldearen lan berriak: 25 minutuko iraupena, zuzena eta artifiziorik gabea. Momentuz, plataforma digitalean bakarrik dago entzungai; baina, aurrerago, biniloan ateratzeko asmoa daukate. Azkenengo urteetan formatu honek beste loraldi bat izan du eta ezinbestekoa bilakatu da musika zaleen artean.

Diska Arrasaten grabatua izan da eta nahasketak eta masterizazioa, aldiz, Katalunian burutu dira. Soinu indartsu eta trinkoa du, aurreko lanek bezala, zuzenekoei begira guztiz aproposa. Instrumentu guztiak oso presente dauden arren, ahots eta koruen tratamendua azpimarratu beharra dago, Yoko abeslariaren eta Liher gitarra-jotzailearen ahotsen osagarritasuna nabarmentzen baita. Gehienbat, gai sozialak lantzen dituzte eta, nahiz eta melodia presente dagoen, amorrua sumatzen da abestiak interpretatzeko orduan. Azala ere ez da atzean gelditzen, egingako lan guztia ederto borobiltzen baitu.

SALAKETA ARGAZKIA



Ez eman oharra. No des la nota.
Jaitsi bolumena Baja el volumen



Errespeturik gabe ez goaz inora Sin respeto no vamos a ninguna parte

Bilbobus

Zurekin mugitzen gara
 Nos movemos **contigo**

B

Bilbao

Errespeturik gabe ez goaz inora

Hala da. Egia da errespeturik gabe ez goazela inora. Eta euskararekiko errespetu falta izugarria da Bilbobus eta Bizkaibus zerbitzuen kanpaina instituzional batean inor arduratu ez izana euskarazko lelo bat sortzeaz. Inork pentsatuko du erakunde publiko hauetan logikoena horixe bera litzatekeela. Beste batzuek pentsatuko dute ezin dela hain zorrotza izan. Baina eska daitekeen gutxienekoa da norbaitek berriakustea ea gaztelaniako jatorrizko ideieren itzulpenak zentzua duen. Bestela, oraingo honetan bezala, erakunde publikoek euskaraz "oharra ematen" (sic) jarraituko dute.

Zure iragarkia

ZM

aldizkarian

Euskara
 sustatu
 Zorrotzan!!

Tarifak eta informazioa:
 zm@zorrotzmorrotz.eus

Jai-Alai
 kafetegia



Abaró estrata, 12
 94 490 12 59

LASTER

Elektrizitatea
 elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOA
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
 LARRIALDIK: 657 79 57 04

ZORROTZA KASTREXANA
 ERREP. 42. MOD. SB
 ZORROTZA 48013

Matrikula zabalik
 2024-2025
 ikasturtea


The aKdmy

Ingeles eta eskolako laguntza

📞 666017195

📧 the_aKdmy

📍 Zorrotza Kastrexana errepeidea, 7




ELBIRA ZIPITRIA IRAOLA.

Zumaia, 1906-05-28 – Donostia, 1982-12-26

Lanbidea: *Pedagogoa*

Hari buruz gehiago jakiteko:

- *Elbira* dokumentala. Iban Gonzalez, 2023.
- *Elbira Zipitria*. Kontxita Beitia, Bidegileak bilduma.



Emakume abertzale, euskaltzale eta feminista honi eskertu behar diogu azken mendearen gure hezkuntza sistema publikoan emandako aurrerapauso asko. Izan ere, hari zor diogu ikastolen sorrera eta, horrenbestez, euskal eskola publikoaren oinarriak ere bai (euskara eta euskal kulturaren transmisioa, umearen beharretara egokitutako pedagogia, berdintasun printzipioak,...).

Gaztetatik bizitza politikoan oso aktiboa izan zen. Emakume Abertzale Batzako, Eusko Ikaskuntzako zein Euskaltzaleok elkarteko kide izanda, abertzaletasuna, euskara eta emakumeen ahalduntzea sutsuki defendatu zituen, hitzez zein ekintzez.

Militantziak bultzatuta, Magisteritza ikasi eta lanean hasi zen hainbat arlotan aitzindaria izan zen Donostiako lehen ikastolan. Bertan, eskolak euskaraz emateaz gain, metodo berritzaileak erabiltzen zituzten, umeen aisialdiari garrantzia ematen zioten eta ez zegoen genero-segregaziorik. Helduak alfabetatzeko gau-eskolak ere sortu zituzten.

1936an, ordea, indar frankistek ikastola itxi zuten, eta Elbirak Lapurdira ihes egin behar izan zuen. Baina han ere ez zuen denbora alferriki galdu: iheslarien umeen maistra izan zen, euskara nahiz euskal kulturaren aldeko ekimenetan parte hartu zuen eta pedagogian sakontzen jarraitu zuen.

Donostiara itzulitakoan, lehen ikastola klandestinoa sortu zuen. 9 urtera arteko neska-mutilen talde txikiak hartzen zituen bere etxean, eta bertan euskara eta euskaraz irakasten zien. Matematika, geografia,... denetarik ikasten zuten behaketa, kantu eta jolasen bidez.

Maistren maistra ere izan zen, berak trebatu baitzituen gazte ugari ikastola klandestino gehiago ireki eta bere metodo berritzaileak erabil zituzten. Eta hark ereindako haziei esker izan zen posible, 70eko hamarkadaren bueltan, ikastolen loraldia, gerora gaur egun ezagutzen dugun euskal eskola publikoa ernatzeko lurzorua onduko zuena.

ALAITZ ALDABALDETRUKU

TXOKO FEMINISTA



Adimen artifizialak aurreiritziak edo disortzioak dituzten datuetatik ikasten badu eta ereduak baliozkotzat jotzen baditu, programatuta dauden ekintzak exekutatzeko dituenean, emaitzak informazio partziala eta alboratua islatuko du. Adibidez, ekintzen exekuzioaren genero-joerak gertatzen dira sistemek entrenamendu-datuaren agertzen diren estereotipo matxistak ikasten eta iraurarazten dituztelako.

2024ko M8ko Emakumearen Nazioarteko Egunean, UNESCOk horri buruzko txosten bat argitaratu zuen. Azterlanean adimen artifizialaren eredu horiei gizabanako desberdinei buruzko istorio bat idazteko eskatzen zieten. Beren kontakizunetan, gizartean errekonozit-

zituak diren lanak esleitu zizkieten gizonetako pertsonaiei, hala nola ingeniari, irakasle edo mediku; emakumeei, berriz, erizain, etxeko langile, sukaldari edo, are, prostituta rola ezarri zieten.

Genero joerarik gabeko adimen artifizialaren ereduak lortzeko, hainbat arlotan neurriak hartu beharko lirarteke: legeari dagokionez, beharrezkoa da araudiak egokitzea; norbanako gisa, modu legal, etiko eta kontsekuentean erabiltzen ikasi beharra dago; eta arlo teknikoan, entrenamendu-datuak askotarikoak direla eta genero guztiak modu ekitatiboan ordezkatuta daudela egiaztatzea behar da, baita ereduak eguneratu eta berrentrenatu ere, disortzioerik gabeko datu berriak sartuz.

IRATZE PÉREZ



Alen (804 m.)

Argazkia: mendiak.eus

MANU COBO

Mendi hau Alen-Cerredo kordalaren zati bat da, eta meatze-istorio handia dau, Enkarterri izenez ezagutzen diren Bizkaiko mendebaldeko lur hauen iragana izan zanaren barruen. Izan ere, burdinazko ustiapenek zulatzen dabe mendia bere perimetroan, eta meatzaritzak jaurrerian izan dauen goienaz egiten dabe berba. Gailurreko postontziak, hain zuzen ere, ondare hura gogorarazten dau. Alengo meatze-barrutiek Peñalba-Raoko meatze-eremuek hartzen ebazan, Federika meatzea eta Barrietas-Gerelagua auzoak egoan tokia, Amalia Juliana meatzea eta Maria meatzea, besteak beste. Alen menditik ateratzen zan minerala meatze-plano batetik jaisten zan Otañeseraino, eta Castro Urdialesera eramaten ebien meatze-trenez, besteak beste Britainia Handira eta Holandara ontziratzeko.

Meatze-ustiapena erromatarren garaierarte luzatzen da. Castron Portus Samanum egoan, gaur egun Samano herrian mantentzen dan toponimoa, eta han kokatu zan Flavióbriga urie. Galtzada erromatar batek lotzen eban urie Herrera de Pisuergagaz (Pisoraca), Mena haranetik. Galtzada horretako miliarioetako batzuk Otañesen aurkitu diez.

Enkarterrietako zati handi batean eban nagusitasunagatik, Alen a helburu militarretarako erabili zan, gerra zibilean azkenik, Bilborako sarbideak babestu ebazan gerrikoaren zati bat izanik. Mapetan Castro Alen izena ere agertzen da, baina ez dau

zerikusirik gai militarrekaz, Luis Otxarane 1900ean martxan jarri eban trenagaz baizik (lehenengo Alen auzoa sortu eban 1876an Amalia Juliana meategia ustiatzeko). Trenak Castro-Alen eban izena eta hortik dator mendiari gehitu dautsien izena.

Igotzeko, ibilbide ezbardinek dauz. Mercadillotik BI-3614 errepede hartu Trasla-viñarako noranzkoan. Barrietas behekoak, Barrietas garaiek eta El Sel auzoetatik Alenera igotzen dan desbideratzea hartu. Bide bat ipar-mendebaldera doa, eta gero ekialdeko hegaletik iparraldeko lepora igotzen da (755 m), Biroleotik (778 m) bereizten jakuna. Azken metroak hegoalderantz igo tontorre-raino (804 m). Hegoaldeko isurialdetik jaits daiteke, kareharria igarotzen dan tokitik, eta leptotik (582 m) herriaren itzulera (574 m) bideratuko jaku ipar-ekialdera, Amalia Juliana, Maria eta Sorpresa meategiak hartzen dabezan sakonunea behean itzite.

RISKO

Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

cafe **txinbo**

Especialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Sader Profersa kanpora!

Zorrotza, Olabeaga, Altamira, San Inazio, Deustu eta Basurtoko bizilagunok, baita Lutxana eta Burtzeña bezalako inguruko auzoetakoek ere, gutun honen bidez salatu nahi dugu urte luzez pairatzen ari garen egoera jasanezina, Sader eta Profersa enpresen jarduera oso kutsakorren ondorioz.

Ez da arazo puntual bat, eguneroko errealitate iraunkorra baizik, gure ingurune osasuntsu batean bizitzeko eskubidea zuzenean urratzen duena. Usain jasanezinak, emisio kutsagarriak eta etengabeko eragozpenak gure egunerokoaren parte bihurtu dira, gure bizi-kalitateari kalte larria eraginez. Gero eta bizilagun gehiagok jasaten dituzte narritadurak, ondoeza fisikoa eta kezka gero eta handiagoa dute esposizio jarraitu honek epe luzera izan ditzakeen ondorioengatik, bereziki haurren eta adinekoen kasuan.

Onartezina da 2015ean instalazio hauek lekualdatzeko hartutako konpromiso irmoa gaur arte bete ez izana. Hamarkada bat baino gehiago igaro da inolako



GARBIÑE GONZÁLEZ

“ Onartezina

da 2015ean

instalazio hauek

lekualdatzeko

hartutako

konpromiso irmoa

gaur arte bete

ez izana.

konponbiderik gabe. Egoera honek erakundeen utzikeria agerian uzten du eta herritarroei mezu argia helarazten digu: gure auzoak bigarren mailan utzi dira.

Ez dugu zalantzan jartzen jarduera industrialaren eta sortzen duen enpleguaren garrantzia, baina ezin da inola ere milaka

pertsonaren osasunaren kontura mantendu. Ingurumen-araudia zorrotz bete behar da, salbuespenik gabe, eta hartutako konpromisoak gauzatu egin behar dira, ez hitz hutsak izan.

Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen dugu:

- Instalazioen behin betiko lekualdakarako egutegi berehalakoa, publikoa eta loteslea.
- Emisioen kontrol zorrotza, independentea eta etengabea egungo kokalekuan jarraitzen duten bitartean.
- Kutsadura-mailen inguruko informazio gardena, herritarrentzat eskuragarria eta ulergarria.
- Biztanleriarengan duen eragina benetan murrizteko neurri eraginkor eta premiazkoak.

Bizilagunok ezin dugu egoera hau gehiago onartu ezta jasan ere. Ordua da administrazioek arduraz eta irmotasunez jarduteko.



Seberia Bilbainak ez ditu ingurumen araudiak betetzen

Seberia Bilbaina haragi-azpiproduktuak eraldatzen dituen enpresa kooperatiboa da; hain zuzen, sebo urtua eta haragi-irina ekoizten ditu animalien hondakinak (seboa eta hezurrak) erabiliz.

Fabrika hau, gaur egun Zubileta auzoan (Burtzeña) dagoena, 1906an jaio zen Matikon, garai hartan hiltegia zegoen lekuan. Hiltegiako instalazioak Zorrotzara ekartzearekin batera, egurra inportatzen zuen enpresa zahar baten lokaletara eraman zuen ekoizpena, Zorrotza aurrean dagoen Zubileta auzora.

Azken bizpahiru hamarkadetan, enpresak auzoan ospe txarra hartu du eta hartzen ari da, usain desatsegin eta higuingarriak sortzen baititu, eta horrek sortzen du bizilagun askok leihoak itxi behar izatea, batez ere gauez.

Hori dela eta, duela gutxi Auzo Elkarteak idatzi bat bidali dio enpresari, usain txarrak isurtzeari utz diezaion eskatzeko edo, behintzat, isurketak ahalik eta gehien gutxitzeko, horretarako beharko liratekeen hobekuntza teknologikoak edo iragazketa-sistema zorrotzago bat ezarritz.



CARLOS RODRÍGUEZ

“Zorrotzako auzo-mugimenduan ez gara fidatzen ez Eusko Jaurlaritzaren ikuskaritzez, eta are gutxiago, enpresa horrek ez-betetze horiek berme osoz eta azkar ebazteaz

Orain arte ez dugu erantzunik jaso.

Egia esan, beren jarduera dela eta, enpresa mota horiek aldi-aldian Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-ikuskapenak egitera behartuta daude. Zehazki, Seberia Bilbainak 2025eko maiatzean jaso zuen azken ikuskapena.

Auzo Elkartearen ikuskapen horri dagokion txostena aurkitu dugu, eta ikusi dugu Seberiak ez dituela betetzen hainbat irizpide; hala nola, airearen kalitatearen eta uraren babesari dagozkionak, ezta

hondakinen eta lurzoruen kudeaketari eskatzen zaizkionak ere.

Ez-betetze horiei oso garrantzitsuak irizita, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailera jo dugu, enpresa horri lehenbailehen zuzentzeko eska diezaion.

Industria Saitetik jakinarazi digutenez, Seberia Bilbainak ingurumena kudeatzeko bi enpresa kontratatu berri ditu, irregulartasun horiek konpontzen has daitezten.

Hala ere, Sader eta Profersarekin izandako esperientzia txarra ikusita, Zorrotzako auzo-mugimenduan ez gara fidatzen Eusko Jaurlaritzaren ikuskaritzez, eta are gutxiago, enpresa horrek ez-betetze horiek berme osoz eta azkar ebazteaz.

Era berean, susmatzen dugu Seberia enpresa zaharkituta dagoela, ez duela azpiegitura egokirik eta ez dagoela teknologikoki eguneratuta, Sader eta Profersa bezalaxe.

Beraz, erne jarraitu behar dugu, eta, era berean, gonbidatu Zorrotzako bizilagunak kexak jartzera, industria horrek haien bizi-kalitatea murrizten duela uste badute.



Iraide


Batez ere erosketako saskian nabaritu dela uste dut, oinarrizko produktuetan. Soldatak, aldiz ez dira igo, eta lehen baino gauza gutxiago erosteko ematen du orain.



Igone

Gerraren ondorioz, dena garestitu da: arrautzak, ogia, barazkiak... Oro har, guztia.

✍ NAROA PEÑA



Prezioen igoera?

Nabaritu duzu?
Zer deritzozu?



Loredi

Aprobatzen ari dira gutaz eta egoeraz; izan ere, adibidez, arrautzen prezioa %50 igo da edo zelulosarena %28. Iruditzen zait gehiegizkoa dela!



Jon Ander

Gasolinaren igoera, adibidez, asko nabaritu dut. Laneko furgonetaren depositoa betetzea dirutza handia da!



Nerea

Gerra baten ondorioak pairatzen ari gara, eta kapitalismoa hori aprobetatzeko ari da nahi dutena egiteko, eta hainbat produktu garestitzeko ere bai.

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zabidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

Lápices

LIBURUDENDA PAPERDENDA
PERTSONALIZAZIOAK
UNTZIOLA KALEA 8

PERSONALIZACIONES
Capricho

B
BiziFitness
CROSSCENTER

CROSS TRAINING
eta
ENTRENAMENDU FUNTZIONALAK
guztiantzat

Zure zain gaude!

ZALBIDEA ESTRATA, 13 625106531

UDALAREKIN EUSKARAZ?

Zu ere animau zaitez



B

Bilbao



iKasi
MiKasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



CEIP ZAZPILANDA-ZORROZOTZI ELHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo

☎ 94 442 48 75

📧 zuzendaria@zazpilandaeskola.eus



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ELHI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo

☎ 94 442 00 21 • 📞 94 442 00 21

📧 014159aa@hezkuntza.net



I.e.s.
ZORROTZA
BAI

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo

☎ 94 439 33 34 / 688 861 374

☎ 94 439 97 41

📧 015078aa@hezkuntza.net

🌐 www.leszorrotzabai.hezkuntza.net

CLOWN ZORROTZA

AZOKA PLAZA PARQUE DEL FERIAL

MAIATZA MAYO
2026



7
EGUENA
JUEVES

19:00 MANDAMANO

50' "KINEMATOS"

8
BARIKUA
VIERNES

18:00 LABU

40' "TRIPLETTE"

9
ZAPATUA
SABADO

18:00 AGRO THE CLOWN

50' "IMPROLOCURA"

19:00 EL MONO HABITADO

70' "EL JUEGO DE LA BOCA"

19:00 NACHO FLORES

50' "DOMTE"

kulturabarrutik.eus



KULTURA JASANGARRIA
CULTURA SOSTENIBLE

KULTURA
BARRUTIK

B

Bilbao